

Kotlarro

12
zbk.

2010ko maiatza

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

Lizarran Kantuz

maiatzak 29
ekainak 26
Arratsaldeko 20.00etan
Baxenabarra kaletik

Txokolipuinak

maiatzak 19
Arratsaldeko 18.00etan
La Bota elkartean



Larunblai / Jauzi

maiatzak 22, 29
ekainean: azken saioa
Arratsaldeko 16.30 – 18.30
Remontival pilotalekuan
eta Maria Vicuñaarenean

Garean Irratian

Larunbatero 13.00tik aurrera
Lizarrako Punto Radio-n (FM 93.5ean)



Eta orain zer egin dezaket?

Milaka lagun bildu zen Iruñeko karriketara «Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea» lelopean, Kontseiluaren deialdiak inoiz baino erantzun jendetsuagoa jaso zuen. Festa giroan egin zen manifestazioa, trikitixa, batukada eta joaldunen laguntzaz.

Maiatzaren 15ean Iruñeko karriketetan milaka euskaltzale bildu zen “Euskaraz bizi nahi dugu” lelopean, eskubide hori bermatuko duen legedia eskatuz eta azken boladan jasandako murrizketak salatuz.

Ekitaldi jendetsua eta arrakastatsua izan zen, euskaldun komunitatea mobilizatu zen, eta poztekoa da, euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea eskatu genuelako. Nafarroako euskaldunen arteko topaketa bikaina izan zen. Horrelako egun alai baten bukaeran denak pozik joan ginen etxera.

Nafarroan gutxiengoak gara, eta gehiengo erdaldunari gutxiengoak errespetua merezi duela adierazi behar dio, bai, eta lege zuzenak eta euskaraz bizi ahal izateko eskubidea. Horixe egin berri dugu bada Iruñean! Eta orain zer? Norbaitek jaramonik egingen ote du? Entzun eta ikusi nahi duenak

entzuten eta ikusten du. Entzun nahi ez duena baino gorrakorik edo ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dagoela dio esaera zaharrak. Borondaterik gabe jai daukagu.

Inori eginiko eskaerak erantzunik duen zain egon gabe, hasteko, erronka handiena geure buruarekin dugu. Geure buruari eskatu beharko diogu zerbait, egun batean Iruñera egun pasa joatea baino zerbait gehiago, ezta?

... *erronka handiena geure buruarekin dugu...*

Laguntzak murriztu dituzte, are eta murriztago laster eta laguntzen zain itoko gara. Ditugun baliabide eskasei eta

diru kopuru txikiari etekin handia ateratzen ikasi beharko dugu.

Euskararen aldeko militantzia aldarrikatu behar da berriro, inoiz modaz pasa bada, berriro indarberritu behar dugu. Eta geure buruari galdetu: zer egin dezaket nik?

Udalen hizkuntza-politiken harira

Zer da hizkuntza-politika? Neurtzerik bada? Nork burutzen du? Nork erabakitzen du? Nola eragiten digu? Eta agian funtsezkoena den galdera, nola eragin ahal dugu? Hizkuntza minorizatu honetan bizi garen guztiok tamalez geure buruari inoiz egin beharko genizkiokeen galderak dira. Nahiz eta testutxo honek ez dizkigun galdera hauek erantzungo, asmoa gai honen gaineko hausnarketarako parada ematea da.


■ Alfredo Dufur

Kontseiluak deituta hizkuntza-politiken ebaluazioa burutzen ari da bigarren ez Euskal Herriko hainbat udalerritan, haien artean Lizarran. 2006 eta 2008 bitartean egin zen aurreneko ebaluazioa eta aurten bigarrena egiten ari da bi milioi biztanletik gora osatzen duten 100 udalerrri baino gehiagotan.

Bigarren ebaluazioa egiteak ahalbidetu egingen du aipatu hizkuntza-politiken garapena modurik ahalik eta zorrotzenez ikusten. Horren bitartez udal administrazioen lanean eragin nahi du Kontseiluak, euskararen normalizazioaren aldean ahalik eta pausorik eraginkorrenak eman daitezen. Hor-taz, hizkuntza-politiken neurketa abiapuntu, ondoren politika horietan aldaketa positiboak lortzeko dinamika bat sortzeko helburua du lan honek.

Landa-lana egiteko Kontseiluak tokian tokiko euskaltzale eta euskalgintzako elkarteak baliatzen ditu. Beraz, aurreneko sei hileko honetan bertako hainbat lagun Lizarrako datuen bilketan aritu gara, Kontseiluak berak bigarren sei hilekoan datu horien interpretatzea egingen du eta azkenik 2011n argitaratuta ikusi ahalko ditugu.

Bertze hainbat alorren artean Lizarrako karteldegia hizkuntza paisaia aztertu egin da: zabor ontzietako oharrak eta azalpenak, autobus geltokiko eta Tierra Estella Busen ordutegiak, kiroldegiko oharrak eta abar luze bat. Lizartar orok bere kaxa egin dezake ariketatxo xume hori, Lizarrako toki publiko



eta esanguratsuetan dagoen hizkuntza paisaia behatuz agerikoak eginen zaizkio ezberdintasunak. Kiroldegian kasu, karteldegia oro har elebiz dagoen bitartean, autobus geltokian ordutegi-zerbitzu guztiak gaztelania hutsean daude, eta kaleko zabor ontziak elebitasun puntu bat izan arren ohar asko gaztelaniaz bertzerik ez daude.

Okerrena agian, hizkuntza eskubide hauen urraketen inguruan dagoen kontzientzia eza litzateke. Udaltzaingoan isun bat eskatzerakoan, eta jakinik euskararen inguruko ikerketa bat egiten ari ginela, ondoko azalpena eskaini zigun harrera egin zuen udaltzainak: agiri hori gaztelania hutsean bazegoen ere ez zela «euskararen kontrako ezerengatik», agirian kondentsatu beharreko informazio guzti horrek ezinbidetzen omen zuen elebiz ipintzea. Ematen duenez ez zegoen bertze irtenbiderik euskara desagerraraztea baino.


Eta hala, euskara apurka-apurka Lizarrako hizkuntza paisiatik desagertzen ari ez ote den galdetzen diot neure bu-

ruari. Paul Bilbao, Behatokiko zuzendari ohia eta Kontseiluko Idazkari Nagusi berria, orain gutxi geure artean izan genuen Hizkuntza Eskubideen inguruko hitzaldi-tailer zeharo interesgarri batean. Bertan Pegenauteren ahotan ipini zuen honako aldarrikapena: «tenemos derecho a no ver el euskera». Erdaldun elebarrak euskara ez ikusteko eskubidea bermatze bidean bagara, zein izango da egungo mila bostehun pasatxo lizartar euskaldunon etorkizun linguistikoa?

*Lizarrako
karteldegia
hizkuntza paisaia
aztertu egin da*

Zorionez, herri honek euskarari erakutsitako atxikimendua nabarmena da, agian garai egokia litzateke Kontseiluak abiarazitako fase berriari ekiteko eta Lizarrako euskaldunok «Bai Euskarari»tik «Euskaraz Bai»ra jauzi egiteko.

Zailtasunak zailtasun azkenean geure esku dago euskara aurrera ateratzea eta gizarteari engaiamendua eskatzeaz gain guk geuk erakutsi beharko genuke euskaraz bizitzeko gogoz gabiltzala. Izena duena ba omen da baina izenetik izanera bada tartea, izan gaitezen ba euskaldun izenez eta ekinbidez.



Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA

INO

PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Anbro Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 - LIZARRA

Garean-jarduerak



Larraizarreko abenturak

«Larunblai» eta «Jauzi»ren lagun gazteak apirilaren 23an Larraizar aterpera abiatu ziren. Jarraian, protagonista baten kronika.

■ Felix Etxeberria

Ni Felix naiz, Larunblaikoa.

Begiraleek proposatu ziguten ea apirilak 23an, arratsaldeko 17.00etan, Larraizarrera igo nahi genuen gaua pasatzera. Denok ados geundenez, Jauzikoei proposatu genien ea etorriko ziren eta baiezkoa eman zigutenez 23an Larraizarrera igo ginen.

Arratsaldeko 17.00etan autobus geltokitik irten eta Maider begiralearen kotxean eta bere aitaren furgonetan 17.20etan Irazun ginen.

Larraizarreko etxeak oso itxura ona zuen nahiz eta elektrizitaterik ez egon. Etxea bero uzteko sua egin genuen. Hurrengo goizean esnatu ginenean gosaltzera joan ginen. Dena bildutakoan iturrira jeitsi ginen ur bila. Gero egur bila joan ginen baita mendiaren tontorrera igo ere. Handik, Iratxeko etxelekua, Aiegi, Lizarra eta Eraul ikusi genituen. Gero etxolan, kanpin gasa piztu eta bazkaltzen hasi ginen. Dena bildutakoan, etxera 45 minututan jeitsi ginen.

Nire iritziz jende gehio animatuko nuke Larunblaira.



Euskaltegiko sagua

Hona hemen AEKko eskaintza «euskarari bai»tik «euskaraz bai» pasatzeko uda honetan.

HEGOALDE

Euskalduntze barnetegia (1B, 2., 3. mailak) ARANTZA
Uztailaren 5etik uztailaren 18ra; uztailaren 19tik abuztuaren 1era
Abuztuaren 2tik abuztuaren 15ra; abuztuaren 16tik abuztuaren 29ra
2 aste (14 egun), 90 ordu: 462 €.

Euskalduntze barnetegia (1B, 2., 3. mailak) FORUA
Abuztuaren 30etik irailaren 12ra
2 aste (14 egun), 90 ordu: 462 €.

Jarduera barnetegia (sakontze) FORUA
Sakontze – Sukaldaritza - Bertsogintza – Antzerkigintza
Abentura kirola
Abuztuaren 2tik abuztuaren 15era
2 aste (14 egun), 90 ordu: 533 €.

EGA/3. maila azterketa prestatzeko FORUA
Abuztuaren 16tik abuztuaren 29ra
2 aste (14 egun), 90 ordu: 462 €.

Familia barnetegia
Aduna (1b) / Forua (2., 3.) / Zugarramurdi (2., 3.)
Uztailaren 5etik 18ra (Aduna – Forua)
Abuztuaren 2tik 15era (Aduna – Zugarramurdi)
2 aste (14 egun), 90 ordu: helduek: 495 €; haurrek: 299 €.

Barnetegi ibiltaria, oinez. Euskal Herrian zehar
Uztailaren 3tik uztailaren 18ra. 16 egun: 450 €.

Barnetegi ibiltaria, bizikletaz. Euskal Herrian zehar
Uztailaren 17tik abuztuaren 1era. 16 egun: 450 €.

IPARRALDE

Euskalduntze barnetegia UREPELE (Hasiera, 1A, 1B, 2 mailak).
Uztailaren 5tik 16ra; agorriaren 3tik 13ra. 12 egun. 70 ordu
AEK-ko kartadunentzat: 530€ / langabetuentza: 450 €
AEK-ko kide izateko 40 €

Barnetegi ibiltaria, oinez. GRIO ibilbidea
Uztailaren 19tik 24ra (ekainak 25)
6 egun. 20 ordu
AEK-ko kartadunentzat: 410 €; AEK-ko kide izateko 40 €

Xiberera ikasteko barnetegi XIBERU
Agorriaren 2tik agorriaren 7ra. 6 egun. 35 ordu
AEK-ko kartadunentzat: 265 € / langabetuentza: 225 €
AEK-ko kide izateko 40 €

Informazio gehiago jasotzeko,
hurbildu Lizarrako Euskaltegira
edo deitu 948 552 406 telefonora.

Garean-jarduerak



Murgil gaitezen irakurketan!

lazko esperientzia onaren ondoren, Gareanek proposamena errepikatzen du: irakurri, gozatu eta oparitu!

Gogora dezagun kanpainaren funtzionamendua laburki:

- Hartu euskarazko liburu bat Lizarrako Liburutegi Publiko-tik, eraman etxera eta irakurriz gozatu.
- Irakurtzen bukatutakoan, itzuli liburutegira. Liburutegian bertan, hiru galdera erraz dituen fitxa bete eta erosketa txeke bat emango dizute.
- Joan liburu dendara eta %25 merkeago erosi nahi duzun beste edozein liburu (Garean elkartearen bazkide bazara deskontua %50ekoa izango da).
- Oparitu lagun bati erosi duzun liburua (edo zeure buruari, merezi duzu eta).


2009an 130 irakurlek bete zituzten mailegatutako euskarazko liburuen fitxak. Herri Liburutegian nabaritu zen euskarazko mailegu kopuruaren igoera.

Lizarrako liburudenda guziak dira laguntzaileak: Compás, Felipe, Ino, Irrintzi eta Clarín. Joan zen urtean 87 irakurlek erosi zuten euskarazko libururen bat beherapen txekea erabiliz.

Garean elkarteak kartelak eta biorrikoak zabaldu ditu kanpainaren berri emateko.

Aurtengoan ere kanpaina honek Lizarrako Udalaren Euskara Zerbitzuaren babesa dauka.

Irakurri, gozatu eta oparitu, hortxe duzue hiru aditzetan Garean elkartearen proposamena; uztailearen 24ra arte duzue epea. On egin!



Jatetxea
Volante
Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

VALENTIN
CARPINTERIA de ALUMINIO
Mundua aluminioz
Itxiturak, ateak, leihoak, eguzki-oihalak...
Zure eguzki-oihala
10 eguneko epean
Ctra. de Logroño, 89 Ayegui - valentin@aluminiosvalentin.com - Tfno. 948 55 45 10



Foto-inkesta

Irakurri, gozatu eta oparitu

Fotoinkesta honetan «Irakurri, gozatu eta oparitu» kanpainak iradoki digu galdetu behar duguna, hona hemen gure bi galderak:

- 1.- Zein liburu da azkena irakurri duzuna, edo oraintxe bertan irakurtzen ari zarena?
- 2.- Irakurri dituzun liburuetatik zein aholkatuko zenioke Lizarrako euskaldunei?



Mainer Etxaniz

1.- *Zazpi etxe Frantzian*, Bernardo Atxagarena. Oso Atxagazaleak gara gure etxean, beti irakurri izan dugu. Liburu hau argitaratu berri zela oparitu zidaten eta oso irakurterreza iruditu zait, azkar irakurtzen da. Ibaikin lotutako sinbologia handia du.

2.- Asko aholkatuko nituzke, baina bada bat 15 urte nituela irakurri nuena, *Babilonia* Juan Mari Irigoienena, bereziki aholkatu nahi nukeena. Oso gustuko izan nuen, eta gero ere bai, unibertsitateko ikasketetan horretaz lana egitea suertatu zitzaidan.



Eneko Etxarri

1. *Ostegunak*, Jon Arretxerena. Aspaldidanik nengoen liburu hau irakurtzeko gogoz, izan ere Gasteizko Soin Hezkuntzako ikasleei buruz zela entzuna nuen, eta nik ere ikasketak horietan egin nituen... Azkenik eskuratu dut eta oraintxe ari naiz irakurtzen, ia-ia bukatu dut. Ongi dago, zati batzuetan txispa handia dauka.

2. *Kutsidazu bidea*, Isabel, Joxean Sagastizabalena. Eskola garaian irakurri nuen, gogoan nuen oso grazioso zela eta berriro irakurri nuen. Oso entretenigarria da, erraz irakurtzen da eta barre handiak bota nituen. Horixe aholkatzen dizuet.



Martin Bilbao

1. *Arotzaren eskuak*, Alberto Ladron Arana-rena. Misteriozko liburuak oso gustuko ditudalako ari naiz honekin. Internet-en bilaketa egin ondoren erosi nuen. Dagoeneko erdiraino irakurri dut eta ongi dago.

2. Bi aholkatuko ditut. Bata klasikoa, *Agurea eta itsasoa*, Hemingway-rena. Liburu hau besteak ez bezalakoa da, oso orijinala, pertsona bakarra bere pentsamenduekin. Beste liburua berriz, modernoagoa, *Mila eguzki eder* Khaled Hosseini-rena. Irakeko emakumei buruz da. Benetan hunkigarria.



Irati San Martin

1. *Habitat*, Katixa Agirrerena. 6 istorioz osatutako liburua da. Denak etxean gertatzen dira, amodioa, heriotza, elkartzasuna, adiskidetasuna... dira gaiak. Lagun batek gomendatu zidan.

2. *Ortzadarra sutan*, Fernando Morillarena. Luze samarra izan arren haxe aholkatu nahi dut, euskal tradizioekin du zerikusia, baina baita gazteekin, festekin eta gaur egungo kontuekin ere.



Miguel Ángel Irisarri Martínez

1. *Abereen etxaldea*, George Orwell idazle-rena.

2. *Arrotza*, Albert Camusena. Eleberri labur hau gizakiaren izaerari buruzko azterketa eta hausnarketa sakona eskaintzen duelako gomendatuko nuke.



Xabier Iaben Soltxaga

1. *Izan bainintzen Nafarroako errege*, Aingeru Epaltzarena.

2. *Autokarabana*, Fermin Etxegoien. Nobelak gaur egungo Euskal Herriaren erretratu sinesgarri, desmitifikatzaile eta aldi berean xumea egiten du. Banandua dagoen, alaba bat duen eta kooperatiba batean diharduen protagonista benetako antiheroia da: nahiko lan du bere bizitzan aurrera egitearekin, eta ez dago inongo aberririk salbatzeko prest. Hizkera aldetik ere, nabarmentzekoa da erregistro informalerako joera handia, baina naturaltasun handiz egiten du; hortaz, jario eta eritmo bizikoa da eta irakurterraza.




GARI eta SEI

ANDER SOLANO




SEI, BADA KIZU KARTELAK
GAZTELANIA HUTSEAN,
GUTUNAK, UDALTZAIN
EUSKALDUNIK EZ...

LASTER SEMAFOROETAKO ATZERA-KONTUAK
ERE ERDARAZ JARRIKO DITUZTE... HORRETAIRAINO!



denborapasak



Gurutzegrama

Ezker eskuin

- 1. Eta, ingeleraz
- 3. Oparitu, galegoz
- 4. Oparitu, katalanez
- 8. Eta, frantsesez
- 9. Eta, galegoz
- 10. Irakurri, frantsesez
- 12. Gozatu, ingeleraz
- 13. Oparitu, frantsesez

Goitik-behera

- 2. Gozatu, katalanez
- 5. Oparitu, ingeleraz
- 6. Gozatu, galegoz
- 7. Irakurri, katalanez
- 11. Gozatu, frantsesez
- 14. Irakurri, ingeleraz

Euskalglofoa

esaera zahar berritua

ZEN **1**



HAIN **1LI**



Udalbide.NET
www.udalbide.net

ALBETIKI ETA INFORMAZIOA GUTXI ESKUA

zerik zure udalbarria eta hui azazu zure UDALBIDEaren informazio guztiak zure eskuetan.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL, HERRI SIKHEAN atzeren bitartek, herri-azterketa, diktio, hiztegia, hiztegia, hiztegia eta gaurko, Euskara eta hizkuntza, hiztegia eta Euskal Herriaren inguruko gaurkoak eta gaurkoak.

Eta hargatik ezazu MAITEN HESTEAREN ELKARTZEMEN-A, nolako jasoko dituzte zure udalbarria zure.

ZUREKIN

www.udalbide.net

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t. 948 554 001
www.centromirari.com

Puy 2010 egitaraua

MAIATZAK 21. OSTIRALA

- 19.00** Foruen plaza, gaita-musika Deierri Akademia gaiteroek eskainita.
- 20.00** Ardo-dastatzearen notak (musika eta ardoa). Musika zuzenean eta dastatzea (Maria Vicuña Gazteriaren Etxean).
Prezioa: 10 €. Inskripzioa aurretik Gazteriaren Etxean.
- 20.30** Carmina Burana (Musika Banda eta Estellerriko abesbatzak).
Golem-Los Llanos Aisialdi gunea. Prezioa: 5 €.

MAIATZAK 22. LARUNBATA

- 12.00-15.00** Kalejira txarangarekin.
- 15.00** Foruen plaza, gazteriaren bazkaria.
- 18.00** Zezen plaza, bigantxak.
- 19.45** Udaletxetik, dantzari-desfilearen irteera.
- 20.00** Foruen plaza, "Larrain Dantzaren X. Eguna".
- 20.00-22.00** Kalejira Alkaburua txarangarekin.
- 23.30-03.30** Foruen plaza, disko-dantza.

MAIATZAK 23. IGANDEA

- 11.00-14.00** Udaletxetik. Erraldoi eta buruhandien konpartseren irteera.
Kalejira eta jaialdia plazetan.
- 17.30-20.00** Foruen plaza, Jarduerak haurrentzat: ipuin kontalaria, jolasak, dantzak, goxokiak...
- 21.00-22.00** Foruen plaza, gaita-musika Iturrieta gaiteroek eskainita.
- 22.00** Foruen plaza, zezensuzkoa.

MAIATZAK 24. ASTELEHENA

- 17.30-20.00** Foruen plaza, jarduerak haurrentzat: jolasak, dantzak, goxokiak...
- 20.00** Coronación plaza, Capoeria-erakustaldia.
- 21.00-22.00** Foruen plaza, gaita-musika Gaiteros de Estella-Hermanos Montero gaiteroek eskainita.
- 22.00** Foruen plaza, zezensuzkoa.

MAIATZAK 25. ASTEARTEA

- 8.00** Dianak gaitero eta txistulariekin.
- 8.30** Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.
- 10.30** Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa.
- 11.00** Puyko Amabirjinaren Basilikan Meza Saindu
- 14.30** Herri Bazkaria "II.Txerrikume-gorespen Eguna".
Santiago plazan.
- 17.00-18.00** Chuchín Ibañez y los Charros. Santiago plaza.
- 18.00-21.30** Foruen plazan, Musikari Berrien Jaialdia:
1. taldea: Lokomotivo (pop-rock)
2. taldea: Los Gardaxos de Konketa (mexikanak)
3. taldea: Los Romanes (rock panamarra)
- 19.30** Foruen plaza. Zozketa eta kontzertuak
Estella-Lizarrako Merkatarien, Ostalaritzaren eta Zerbitzuen Elkarteak antolatuta.



kotarro

12. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 800

UDALBIDE
ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.